

LAN BATZORDE IREKIAK

TALDEA

OBRA BATZORDEA

IRAUPENA

1.5 ordu

EGUNA

2018-09-04

GAIA

DEIALDIA

PARTE HARTZAILEAK

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Xabier Barriola

Asier Osinalde

Nikolas Igarzabal

Iñaki Maiz

Felix Maiz

Joxe Kruz Baztarrika

LANDUTAKO GAIAK

GAIA	EKINTZAK	ARDURA DUNA	NOIZKO
AZTIRIKO TABERNA	<ul style="list-style-type: none">Lakuan izan ginen aukera hauen inguruan enteratzeko. Laguntzak badaude etxebizitza berritzeko, baina baldintza nahiko estuak dira bizilagun posibleei dagokionean.Kontua da, bizilagunen diru sarrerak ezin dutela kopuru jakin bat baino handiagoa izan, eta horrek asko mugatuko luke.		
BASERRIBIDEAK	<ul style="list-style-type: none">Erreserbako zerrendan lehenbizi dago Azkartzako bidea, baina oraindik ez daukagu berririk, nahiz eta esperantza badaukagun beste proiekturen bat atzera bota eta zerbait iristeko. 40.000€ko aurrekontua dauka.Sendo enpresarekin hitz egindako proiektua, urte amaiera aldera jarriko da martxan, eta ia bi urteko lana litzateke.		
MINATAKO BIDEA	<ul style="list-style-type: none">Ez dago berririk. Proiektua aldundiak egitekotan dira, baina oraindik ez daukagu berririk.		
SANTALUTZIKO IRTEERA	<ul style="list-style-type: none">Santalutzin Urkiola aldetik errepide nagusira zegoen irteera itxi egin zuten bidegorria egiterakoan. Hainbat bilera egin dira bai bizilagun, aldundi eta Ezkioko udalarekin ere, eta azkenik berriro irekitzekotan geratu da aldundia.		
OSTATU	<ul style="list-style-type: none">Obra batzordean erabaki bezala, hasierako priketuari buelta bat eman, aurrekontua jaitsi eta Leader-en barruan sartu zen, guztira 195.000€ inguruko aurrekontuarekin (hasierakoa 250.000€ ingurukoa zen).Gauzak honela, proiektua bi zatitan egingo litzateke, eta zati bat aurrean egingo litzateke: lehen fasean etxe kanpoko aldea egokitu, eta bigarreanean igogailua jarri.		
ALEGI AUZOA	<ul style="list-style-type: none">Autobus geltokia eta bide gorriaren proiektua aurrera doa baina ez daukagu informazio ofizialik noiz hasiko direnaren inguruan.Industrialdeko sarreraren inguruan, txosten bat egin eta aldundira eta Ormaiztegi udalera bidali da, argudiatuz,		

	<p>nola arazo hau sortu dutenak beraiek izan diren eta beraien inplikazioz konpondu behar litzatekeela.</p>		
DATOZEN OBRA POSIBLEAK	<ul style="list-style-type: none"> Orbeliko karril azpiko bide zatiaren inguruan bihar bertan daukagu bilera Mutteirekin, martxan jartzeko asmoz. 		
ESKOLA	<ul style="list-style-type: none"> Egin beharreko lanak uztailean bertan amaitu ziren. 		
ARAU SUBSIDIARIOAK	<ul style="list-style-type: none"> Bilera irekia egin zen eta bertan hainbat puntu atera ziren lantzeko. Puntu hauek denak arkitektoarekin hitz egin eta martxan jarri dira. Jarraipen bilera bat urrian egingo da aurrerapenen inguruan hitz egiteko. Bilera hau, urriak 16, asteartea, 19:00tan izango da. Arroako proiektuaren inguruan, jabeekin bilera bat egin da eta martxan jarri da behintzat. 		
FRONTOI AZPI	<ul style="list-style-type: none"> Obra eginda dago, euri urei irteera emateko kale erdian dagoen arketatik. 		
UDALETXEKO KOMUNA	<ul style="list-style-type: none"> Planteamendu orokor bat eman beharra ikusten da solairu guztiaren irisgarritasunari, beraz, zenbakiak egin eta baloratu egin beharko da. Hala ere, gai honek ez dauka lehentasunik. 		
ESKOLAKO PARETA	<ul style="list-style-type: none"> Ostatu aldera dagoen pareta nahiko gaizki dago, eta zenbaki batzuk egingo dira ea pintatzea zenbat kostako litzatekeen. Behin hasi ezker, eskola osoaren aurrekontua egingo da. 		
HUSTIATEGI TXARTELA	<ul style="list-style-type: none"> Legazpin kurtso hau emateko aukera atera da fitosanitarioak erosi ahal izateko titulua ateratzeko. Herrian bando bat zabalduko da interesaturik dagoen ikusteko. 25 parte-hartzaile behar dira gutxienez, 25 orduko iraupena dauka (5-6 egun) eta %90eko asistentzia bermatu beharra dago. Azaro aldera izango litzateke. 		
AGERRRE AZPIKO KRUZEA	<ul style="list-style-type: none"> Bi errepideak banatzen diren bidegurutze horretan hainbat eskapada gertatu dira azken aldian, bai kotxe, bizikleta eta oinezkoekin, eta kexak jaso dira. Horregatik, aldundiari txosten bat bidaltzean pentsatu da. Txosten horri indarra emateko, firma bilketa bat ere egitea ongi ikusten da. 		

Hurrengo bilera: azaroak 13, 19:00tan